



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 20a

80. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00099. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita "Bildotsaren Festa" nahiz gure tradizioari arrotz zaizkion gisa bereko ospakizunak debeka ditzan, Espainiako nazioaren identitatearekin eta ohiturekin bateraezinak izateagatik. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita albait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-25/MOC-00101. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko plan bat gara dezan 6 hilabeteko epean, 2030erako Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, normahik baliatzeak, para ditzan. Oihan Mendo Goñi jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen ditzan. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkartza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrena. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (9. or.).
- 11-25/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).
- 11-25/MOC-00070. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita behin betikoz ekin diezaion Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetzea (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-25/POR-00245. Galdera, Errenta Bermatuaren eskabideak ebazteko eta jakinarazteko hiru hilabeteko epea luzatzeari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00247. Galdera, jakiteko trantsizio ekologikoren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan 2024rako onetsitako aurrekontuaren zer portzentaje bete den gaur arte. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00248. Galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak baloratzeko eta horiei prestazioak emateko atzerapenak murrizteko neurriei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00249. Galdera, etxeko laguntza-zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemei eta horien inpaktua neurtzeko baliatzen diren adierazleei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00250. Galdera, kalean lo egiten duen lau adingabeko familiaren egoera bideratzeko neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00251. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeheriei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00253. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeheriei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00254. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00255. Galdera, Foru Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko enpresa-batzordearekin koordinatutako berrindustrializazio-mahaiari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00256. Galdera, Beiren egin den "Eskola Aktiboak" jardunaldiari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00257. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak ukitutako irakasleei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00258. Galdera, gerrako biktimak hobitiki atera, identifikatu era erreparatze aldera Nafarroak jaso dituen funtsen banaketari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00259. Galdera, Aizkolegiko jauregian eta Bertizko Jaurreriko parke naturalean 2025ean egindako jarduketari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00260. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroan izandako gertakariari buruzkoa. Mario Fabo Calero jaunak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00261. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren kudeaketari buruzkoa. Mario Fabo Calero jaunak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00262. Galdera, Historia Sozial Bakarrari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00263. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egiteko arrazoiei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00264. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egin izanak utzitako hutsunea betetzeko ekintzei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Ebazpena, Kontuen Ganberako lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda (24. or.).
- 11-25/ACOP-00013. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, El Salvadorren gertatzen ari den giza eskubideen urraketa sistematikoa dela-eta (25. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00099. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita "Bildotsaren Festa" nahiz gure tradizioari arrotz zaizkion gisa bereko ospakizunak debeka ditzan, Espainiako nazioaren identitatearekin eta ohiturekin bateraezinak izateagatik

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita "Bildotsaren Festa" nahiz gure tradizioari arrotz zaizkion gisa bereko ospakizunak debeka ditzan, Espainiako nazioaren identitatearekin eta ohiturekin bateraezinak izateagatik.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkezten du, kanpoko praktika kulturalen aurrean, "Bildotsaren Festa" esaterako, Espainiako herriaren usadio eta ohiturak aldeztari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Espainia filosofia grekoaren, zuzenbide erromatarren eta zibilizazio kristauaren oinarrietan eraikitako nazioa da. Esparru horretan, inportatutako erritu eta ospakizun jakin batzuek, hala nola "Bildotsaren Festa" izenekoak, ez dute zerikusirik gure identitate nazionala etengabe eratu duten usadio eta ohiturekin.

"Bildotsaren Festa" deritzonak, jatorri mahometanokoak, animaliak masiboki sakrifikatzea dakar, Espainian errotuta ez dagoen konfesio baten erri-tuaren parte gisa, eta horrek ez du zerikusirik gure historiarekin, ez eta gure festekin ere. Segurtasunaren eta osasunaren babesaz harago, zeinak legeak babestutako ordena publikoa osatzen duten elementuak baitira, Espainiako lurraldean horiek egitea atzerakada kulturala izateaz gain, gizartearen bizitza espiritualari ekarpen preziatua egiten dioten Espainiako tradizioei eusten dieteneko konparaziozko bidegabekeria ere bada.

Bereziki kezkgarria da «Bildotsaren Festa» ospatzeko administrazio publikoen lankidetzat aktiboa edo pasiboa izatea: espazioak lagatzea (Algeci-rasko zezen-plaza erabiltzeko eskaerarekin gertatu zen bezala)¹; hiltz mugikorak instalatzea; erakun-deen babesa lortzea, Katalunian² edo Ceutako eta Melillako Espainiako hirietan, non ospakizun tradi-zionalen ordez, hala nola Santiago Apóstol edo San Jose, 2025eko ekainaren 6ko Sakrifizio Festa lane-ko festatzat hartzea erabaki baita, Ceutan «Eidul Adha» eta Melillan «Aid Al Adha» izenarekin³.

1 LA GACETA, «Los musulmanes exigen el uso de la plaza de toros de Algeciras (Cádiz) para celebrar la fiesta del cordero» (2025eko maiatzaren 23a). Hemen esku-r daiteke : <https://gaceta.es/espana/los-musulmanes-exigen-el-uso-de-la-plaza-de-toros-de-algeciras-cadiz-para-celebrar-la-fiesta-del-cordero-20250523-1016/>

2 LA GACETA, «La fiesta islámica del cordero, autorizada en España (con mataderos «móviles» incluidos) y prohibida en Marruecos» (2 junio 2025). Hemen esku-r daiteke : <https://gaceta.es/espana/la-fiesta-islamica-del-cordero-autorizada-en-espana-con-mataderos-moviles-incluidos-y-prohibida-en-marruecos-20250602-0006/>

3 MINISTERIO DE TRABAJO Y ECONOMÍA SOCIAL, Resolución de 15 de octubre de 2024, de la Dirección General de Trabajo, por la que se publica la relación de fiestas laborales para el año 2025: «EAO» 252.zkia. (2024ko urriaren 18a), 133568. or.

Bitartean, gobernu lokal, erregional eta nazionalak euren ustezko "neutraltasun erlijioso" dela-eta harro agertzen dira, eta "bizikidetza" deitzen dutenaren izenean, tolerantziaz harago, gure ondarearen gainbehera kontzientea sustatzen dute, berez amore-emate kulturala besterik ez dena.

Paradoxikoki, gure herrialdean erreserbarik gabe hartzea exijitzen zaizkigun praktika inportatu horiek murrizturik edo debekaturik dauden beren jatorrizko herrietan. Aurten, esaterako, Marokoko Gobernuak mugak jarri dizkio "Bildotsaren Festa" deitutakoari⁴. Alegia, Marokok bere ohiturak murrizten ditu bere lurraldean, eta Espainian, berriz, ohitura horiek ezartzea sustatzen da, baita gure legeak urratzearen, segurtasuna konprometitzearen eta gure tradizioak higatzearen kontura ere. Paperen alderantzizkatze hori – guk toleratu egin behar dugu beraiek beren lurrian onartzen ez dutena – amore-emate kulturalaren eta sumisio ideologikoaren adibide kezagarria da.

Ohiturak eta tradizioak oso errotuta daude Espainian, herri baten ethosa taxutzen dute, gure identitatearen parte dira eta horiek babestu beharra dago. Espainiako Konstituzioak berak berariaz ezartzen duenez, «Espainiako nazioak [...] bere subiranotasunaz baliatuz, honako helburu hauek lortzeko borondatea aldarrikatzen du: [...] babesa ematea espainiar guztiei [...] beren kultura eta tradizioen arloan» (Aitzinsolasa). Zuzenbide Estatuaren printzipioak bermatzen du legea subiranoa izatea, eta ez gutxiengo baten borondate arbitrarioa, gutxiengo horrek, ez dezagun ahaztu, harreko herrialdearen ondare material eta espirituala errespetatzeko betebeharra baitu.

Nazioak bere kultura propiorako eskubidea du; horren bidez, herriak bere "subiranotasun" espirituala adierazten eta sustatzen du. Gure herriaren ethosa ez defendatzearen ondorioek zuzenean eragiten diote gure aberriaren kohesioari, Defentsaren Estatu Nagusiak (EMAD) ohartarazten duen bezala: «etnia, erlijio, ohitura eta hizkuntza desberdinak dituen etorkin-populazioaren hazkundeak, horiek hiri- eta/edo landa-ghettoetan (bantustanak deiturikoak) elkartuko balira, gizarte-kohesioan eragin lezake, barne-tentsioak eta -gatazkak sortuz» (2021eko urria)⁵.

Aurreko gutzia dela eta,

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu:

1. "Bildotsaren Festa" nahiz gure tradizioari arrotz zaizkion gisa bereko ospakizunak debeka ditzaten, Espainiako nazioaren identitatearekin eta ohiturekin bateraezinak izateagatik.

2. Ganbera honek adieraz dezan ospakizun hori autonomia- edo udal-eremu publikoetan egitea errefusatzeko duela, Espainiari arrotz zaion praktika kulturala izateagatik.

3. Agintari eskudunei eska diezaieten Espainiako tradizioaren parte ez diren eta gizarte-kohesioan eragina duten praktika kultural arrotzak errozteko, barne-tentsioak eta -gatazkak, deserrotzea eta nazio-nortasunaren gainbehera dakartzatelako.

4. Espazio publikoan Espainiako herriaren berezko tradizioen errespetua eta babesa aldarrika ditzaten, amore-emate ideologikoko, elektoralismo-ko edo presio ekonomikoko politikak bultzatutako ohitura arrotzen aurrerapenaren aurrean.

5. Berariaz, indarrean dagoen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuak arautzen dituen lanaldiari, lanaldi bereziei eta atsedendiei dagokienez:

– Indarrean dauden nazio-esparruko jaiegun espainiarrak, ordaindu bai baina errekueratu behar ez direnak, bermatuko dira: urtarrilaren 1a, Urteberri eguna; urtarrilaren 6a, Jaunaren Agerkundera; Ostegun Santua; Ostiral Santua; abuztuaren 15a, Ama Birjinaren Jasokundera; azaroaren 1a, Domu Santu eguna; abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbia; abenduaren 25a, Eguberri eguna.

– Halaber, Espainia osoan gure nazioaren berezko festak berreskuratzeko behar diren neurriak bultzatuko dira, halako moduan non festa-esparruan eraitsi den guztia berreraikiko baita: uztailaren 25ean, Santiago apostolua; martxoaren 19an, San José; Corpus Christi; Igokundera; ekainaren 29an, Pedro eta Pablo santu apostoluak.

6. Espainiako gastronomia eta harakintza tradizionalak aktiboki sustatuko dira atzerriko zigiluen hedapenaren aurrean (halal, esaterako), kontsumi-

⁴ EL CONFIDENCIAL, «El rey de Marruecos pide a sus ciudadanos renunciar a su gran ritual islámico: sacrificar el cordero» (2025eko otsailaren 27a). Hemen eskuratu daiteke: < https://www.elconfidencial.com/mundo/2025-02-27/el-rey-de-marruecos-pide-a-sus-ciudadanos-renunciar-a-su-gran-ritual-islamico-sacrificar-el-cordero_4074544/>

⁵ ESTADO MAYOR DE LA DEFENSA (EMAD), Estado Mayor Conjunto (EMACON), Centro Conjunto de Desarrollo de Conceptos (CCDC), «Horizonte 2040 Segunda Edición» (2021eko urria), 50. or. Hemen eskura daiteke: https://emad.defensa.gob.es/Galerias/CCDC/files/HORIZONTE_2040.pdf

tzaileek gure elikadura-kulturan errotutako produktuak izateko duten eskubidea bermatuz eta gure ohiturak, bereziki tokikoak, aldeztu dituzten ekoizleei lagunduz.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/MOC-00100. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita albait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepre-sioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita albait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailaren 3koa, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepre-sioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko ekainaren 29an egindako bilkuran, uztailaren 3ko 11/2017 Foru Legea onetsi zuen (haren bidez, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepre-sioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea aldatu zen).

Lege horren aitzinsolasak argi eta garbi azaltzen zuen ekimenaren zergatia:

«Foru lege honek hedatu egiten du azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen aplikazio-esparrua, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepre-sioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoarena, hartan jasotako kasuei gehituz "haurtxo-lapurketa" deritzon jokabidearen biktimena.

Aipatu beharra dago izan zela genero-errepre-sio mota bat, emakume izateko eredu bakar baten eta ama izateko modu bakar baten inposizioan oinarritua: hots, frankismo moralista hark inposatu ohi zuen familia tradizionalerako ereduaren sartzen zena. Giro horretan, masiboki egin ziren "haurtxo-lapurketak", laguntzaile izan zituztela erlijio-, osasungintza-, politika- eta epailetza-arloetako pertsonak. Horrela, milaka haurtxo lapurtu zitzaizkien Espainia osoan haien gurasoei, engainu, ezkatze eta bazterkeria bitartezko adopzio faltsuan entregatuak izateko. Bereziki kaltetuta gertatu ziren politikoki nabarmendutako emakumeak, familia ugari-dunak, gabezia kultural eta ekonomikoak zituztenak eta, gehienetan, gizarte-posizio apalekoak.

Horrenbestez, foru lege hau kokatu behar da gertatua argitu eta biktima horiei ordaina emateko Nafarroan abian den prozesuan».

Garatu beharreko zenbait kontu jasotzen ditu: ADN bankua sortzea (artikulu bakarra), haurtxo lapurtuen errolda bat egitea (artikulu bakarra) edo ekitaldi instituzional bat egitea arazo honek ukitutako pertsonen eskakizunen alde (lehen xedapen gehigarria)... Legea onetsi zenetik zortzi urte igerota, legearen garapena gorabeheratsua izan da, eta zenbait gauza ez dira oraindik bete.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren eta osorik garatu dezan 11/2017 Foru Legea, uztailearen 3koa, zeinaren bidez aldatu baitzen azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz

eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, uztailearen 3ko 11/2017 Foru Legetik betetzeke dagoen edukia osorik betetzen hasteko (horren bidez, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko 33/2013 Foru Legea, azaroaren 26koa, aldatu zen), 12 hilabeteko epean ekitaldi instituzional bat antolatu eta egin dezan, foru lege horren lehenbiziko xedapen gehigarrian jasotzen dena betetze aldera, auzi horrek ukitutako pertsonen eskarien alde.

Iruñean, 2025eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00101. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko plan bat gara dezan 6 hilabeteko epean, 2030erako Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, nornahik baliatzeak, para ditzan

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko plan bat gara dezan 6 hilabeteko epean, 2030erako Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, nornahik baliatzeak, para ditzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zloen azalpena

Automozioaren Europako Erregioen Aliantzaren presidentetzari amaiera emateko ekitaldian, Chivite lehendakariak onartu zuen deskarbonizazioa atzera bueltarik gabeko bide bat dela, eta nabarmendu zuen politika publikoek funtsezko zeregina dutela errazte aldera automozioaren industriaren trantsizioa eta herritarren atxikimendua bizimodu jasangarri horrekiko.

Deskarbonizazioaren arloan Espainiako estatuak eta Nafarroak Europar Batasuneko konpromisoek berekin dakarte beste bultzada bat ematea mugikortasun jasangarri elektrifikatuari, zeina, aitzina egiten ari den arren, ez baita nahi bezain azkar garatzen ari ezarritako helburuak lortzeko.

Egoera horrek automozioaren sektorea kezkatzen du; hori dela-eta, sektoreak administrazioari eskatu dio apustu irmoa egin dezan ibilgailu elektrikoaren alde, bere birmoldaketa-prozesuarekin bat. Orain dela gutxi, "SEAT etxea adierazpena"

sinatu zen Bartzelonan (Nafarroak ere sinatu zuen), zeinean planteatzen baita azkartzea karga-azpiegitura ezartzeko erritmoa, batez ere karga ultralasterrarena.

Mugikortasun jasangarriaren helburuen jarraipen-txostenaren arabera, karga-puntu publikoak bikoiztu egin dira Nafarroan 2022tik 2024ra bitarte, 469 izateraino, baina pribatuak baino askoz ere mantsoago, zeren eta horiek hirukoiztu egin baitira, 738tik 2.264ra. Gainera, kargagailu ultralasterren kopurua 21ekoa baino ez zen 2024ko martxoan.

Azkenik, egungo karga-azpiegitura ez dago Nafarroa osoan zehar banatuta, eremu zuri eta grisak sortuta, nornahik erabiltzeko karga-sareak behar bezala hartzen ez dituenak.

Nafarroako Energia Planaren arabera, 2030erako 800 karga-puntu paratuko dira –gaur egun daudenak halako bi, alegia–, eta horietako % 50 karga lasterrekoak izan beharko dira. Helburu hori lortuko bada, urtero egin behar da hainbeste instalazio non biderkatu egingen baita kargagailu lasterren kopurua Nafarroako lurralde osoan.

Nafarroan, % 23koa da ibilgailu elektrifikatuen portzentajea; datu gogobetekoa da konparazioa eginez gero, baina hala izaten jarrai dezan eta, are, portzentajea igo dadin, beharrezkoa da behar adinako karga-azpiegitura segurua paratu dadin.

Erabaki proposamena:

1. Berariazko plan bat garatuko da sei hilabete-ko epean, 2030era begira, Nafarroako Gobernuaren jabetzako karga-puntuak, nornahik erabiltzekoak, paratzeko, urtero instalazio-mugarriak ezarriko dituen, behar adinako aurrekontua izan den duena eta bestelako neurriak ere aintzat hartuko dituen, hala nola instalazio seinaletikoa. Plan horretan jasoko da zutoinen % 50 izan den dela, gutxienez ere, karga laster/ultralasterrekoak, eta zutoinen hedapen orekatua egingen dela Nafarroako eremu zuri eta grisetan, toki-entitateekin lankidetzan.

2. Kanpaina bat egingen da, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan, toki-entitateek karga-zutoin publiko berriak paratu ditzaten eta jada paratuta daudenak berrikus ditzaten, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko.

3. Nafarroako Gobernuaren karga-puntuak kudeatzeko plataforma (navarraterecarga) eguneratuko da, dauden karga-puntu guztiak sartu ahal izateko eta emaitzen kudeaketa eta monitorizazioa egin ahal izateko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/MOC-00102. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendaria berrikustean Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obren exekuzioari buruzko aurreikuspenak mantentzen.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamariquek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 220. artikuluan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Gobernuak, 2019ko maiatzaren 8an, 2019-2030 aldirako Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzendaria onetsi zuen, kasuko parte-hartze prozesua bukatu eta gero.

Plan horren 6.3.2.4 apartatua –"Estellerriaren goi-hornidura hobetzea"–, honako hau adierazten da (117. orrialdea):

"Itoiz eta Nafarroako Ubidea lotzea, Lerín, Carcar, Andosilla eta San Adrián hornitzeko (eta ondoren adierazten den bezala, baita Erriberagoiena eskualdeko Azagra ere). Konexio hori 2024an hasiko litzateke egiten, eta 2027rako amaituko litzateke, esleitutako bolumena 2,20 hm³/urte izanik; horietatik, 1,61 hm³/urte Estellerriko herriei dagokie, eta 0,59 hm³/urte Erriberagoienako Azagrari. Honekin batera doan mapan gutxi gorabeherako trazadura bat jaso da, proiektuaren fasean sakonago aztertu beharko dena."

119. orrialdean, berriz, egin beharreko inbertsioak zehazten dira; horien artean, Itoitz-Nafarroako Ubidearen eta EUTEaren arteko konexioa egiteko inbertsioa: 12.000.000 €.

2025 honetako martxoan, Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren berrikuspena aurkeztu da. Dokumentu horretan (87-88. orrialdeak), birritan aipatzen dira Estellerriko jarduketak:

"Nafarroako Ubidearekiko balizko konexioa egiteko obrak ustez ezin izanen dira hasi planaren amaiera-aldera arte edo are geroago arte, obrak baimentzeko eta emakida aldatzeko egin beharreko zenbait tramite administratibo egin behar direlako.

(...) Nafarroako Ubidearekiko konexiorako zer alternatiba dagoen aztertu da (alternatiba horiek III.3 eranskinean kontsultatzen ahal dira: "Estellerriko Erriberarako alternatibak"), baina lehenbizi tramite administratiboak ebatzi beharko dira, emakida aldatzeko aukera barne, eta horrek berekin ekarriko du 2030etik harago joatea, bai eta, hortaz, plan zuzendariak harago ere".

Halatan, Itoitz-Nafarroako Ubidearen eta EUTEaren arteko konexioa egiteko Gobernuak aurreikusitako inbertsioa 12.000.000 €-tik 1.000.000 €-ra murrizten da. Are gehiago, horrek adierazten du Nafarroako Ubidearekiko konexioa ezin izanen dela egin ezta plan zuzendaria amaitzen denean ere, 2030ean.

Ezerk ere ez du justifikatzen zer dela-eta gertatzen den atzerapen hau Mendazako putzuei buruzko egungo presioa arintzea ahalbidetuko lukeen konexio hori egin dadin. Ezin da ahortzi Jurramen-

diko Mankomunitateak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren behin-behineko emakida duela putzu horietatik ura ateratzeko. Behin-behineko emakida hori 2025eko azaroan bukatuko da, 2013an izapidetutako espedientea dela-eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ebatzi beharrekoaren baitan dagoelako.

Egungo egoera luzatzen bada, eta Mendazako erauzteak areagotzen badira herri gehiago sartzen delako, sistemaren gaineko presioa jasanezina izateraino okertuko da. Nabarmendu beharra dago agorraldian zehar areagotu egiten dela ur-erauzketa, noiz eta Ega ibaiaren akuiferoan ur gutxien dagoenean.

60 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba bat dago, eta Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarekiko konexioa onetsita plan zuzendariaren bigarren seiurtekoa egin dadin, 12.000.000koa hala eroapenatarako nola EUTErako, zail da ulertzen atzerapen hori exekuzioetan eta konexiorako obren finantzaketa drastikoki murriztu izana, heldu diren urteetan hornidura-segurtasuna galtzen baita horrenbestez.

Ondorioz, 2019-2030 aldirako Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzendariaren berrikuspena (eta, bereziki, Itoitz-Nafarroako Ubidearen eta EUTEaren arteko konexioa egiteko inbertsioa drastikoki murriztu izana) mehatxu larria da Estellerrian ur-hornidura jasangarria izan dadin, eta ingurumen-zabarkeria gori-goria ere bai.

Hori dela-eta, honako mozio hau aurkezten da, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean eztabaidatua eta onetsia izateko:

Lehen. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren berrikuspenean mantentzen ditzan Nafarroako Ubidearekiko konexiorako obrak egiteko aurreikuspenak, eta EUTEaren obrak has ditzan 2025-2030 bigarren seiurtekoan, al bait lasterren liberatzeko Lokizko erauzketek dakarten ingurumen-presioa.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2019-2030 Plan Zuzendariko jatorrizko inbertsioak mantentzen ditzan, Estellerriko Erribera hornitzeko Nafarroako Ubidearekiko konexioaren eroapenei eta EUTEari dago-kenez; 12.000.000€, hain zuzen ere.

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/MOC-00103. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premia- tzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari- tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako sei- garrena

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premia-
tzen baita berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-
tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abzutuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako sei-
garrena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Lehendakari-
tza eta Berdintasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-
egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Lehendakari-
tza eta Berdintasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-
tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abzutuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoa abzutuaren 22an sartu zen indarrean.

Azken xedapenetako sei-
garrenak 3/2007 Lege Organikoa aldatzen du, honako xedapen honekin:

1. Berdintasun-agenteen lanbidean sartuko dira genero-ikasketen, ikasketa feministen eta berdintasun-politika publikoen arloko graduko, graduondoko edo baliokide den titulu bat daukaten pertsonak, irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotakoa (errege dekretu horren bidez, unibertsitate-ikasketen eta haien kalitatea ziurtatzeko prozeduraren antolamendua ezartzen da), edo berdintasun-politikak taxutzen garatzen edo ezartzen esperientzia handia eta kreditatua daukatenak.

2. Unibertsitate-ikasketen eta haien kalitatea ziurtatzeko prozeduraren antolamendua ezartzen duen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin eta onetsiko dira titulu hori lortzeko ikasketa-planak.

3. Sei hilabeteko epean, Gobernuak, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak proposatuta, berdintasun-agentearen tituluaren izaera ofiziala ezartzeko proposamena onetsiko du, bai eta erregelamendu bidez garatu ere, eta ministro agindu bidez zehaztuko ditu lanbidean jarduteko gaitzen duten tituluak egiaztatze-
ko eta esperientzia egiaztatze-
ko betekizunak. Xedapen horren hirugarren puntuak ezartzen duen sei hilabeteko epea bete ez denez, honako mozio hau aurkezten dut:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premia-
tzen du berehala eta zorrotz bete dezan Emakumeen eta gizonen arteko ordezkari-
tza parekideari eta presentzia orekatuari buruzko abzutuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako sei-
garrena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-
tzen du ondotik azterketa bat egin dezan berdintasun-agentee-
k Nafarroako adminis-
trazioetan dituzten eginkizunei eta sartzeko baldintzei buruz.

Nafarroan, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/MOC-00104. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premia-tzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premia-tzen baita Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garpeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garpeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko: Espainiako Gobernuak premia-tzen da Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritzako Politika Erkide soilagoa eta landa-eremurako baliagarriagoa egin dezan, behar adina baliabide eta egitura propioa izanen dituen, eta erabakia Gobernuari eta Nafarroako nekazaritza sektoreari helaraztea.

Zioen azalpena

Erromako Itunaren bidez sortu zen Nekazaritza Politika Erkidea (NPE) funtsezkoa izan da Europa eraikitzeke, Europar Batasunaren elikadura-segurtasuna, landa garapena eta lurraldekoherioa ziurtatu duen neurrian. Berriki, Alderdi Popularra buru duen Europako Batzordea azter-tzen ari da, urte anitzeko hurrengo finantza esparruaren baitan, aurrekontu-programa guztiak gutun-azal nazional bakarretan sartzeko aukera,

eta horrek esan nahiko luke Nekazaritza Politika Erkidea ez litzakeela politika independentea gehiago izanen.

Proposamen horrek kezka handia sortu du nekazaritza-sektorean eta agintari nazionalen artean. Luis Planas Espainiako Nekazaritzako ministroak defendatu du NPEk EBko gainerako funtsetatik bereizitako aurrekontu-programa izaten jarraitu behar duela, berezitasun bakarrarekin eta lehen sektoreari laguntzeko aurrekontu egokiarekin.

Gainera, Europa osoko nekazaritza-organiza-zioek, hala nola ASAJAK, COAGek, UPAk eta nekazaritzako elikagaien kooperatibek, NPE funts bakarrean integratzearen aurka daudela adierazi dute, eta argudiatu dute horrek funtsa lausotuko lukeela, erantzuteko gaitasuna ahulduko lukeela eta EBko nekazaritza-sektorearen jasangarritasuna arriskuan jarriko lukeela. Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premia-tzen du:

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premia-tzen du Europar Batasunari eska diezaion Nekazaritza Politika Erkidegoa, bi zutabetan oinarritua, orain arte bezala: lehen zutabea, zuzeneko laguntzak eta merkatu-neurriak, eta bigarrena, landa-garapenera bideratua.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premia-tzen du Europar Batasunari finantza-zuzkidura nahikoa eska diezaion, Nekazaritza Politika Erkiderako nortasun juridiko eta instituzional propioarekin, EBren gainerako politiketatik bereizita.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premia-tzen du NBE sinpletzea defenda dezan, bai eta tresna bizkor eta eraginkorrek ere, eragin-korragoa izan dadin eta nekazarien eta abeltzainen arazoetatik hurbilago egon dadin.

4. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du erabaki hauek Espainiako Gobernuari, UAGN eta ENHE nekazaritza-organizazioei eta Nafarroako Nekazaritza Elikagaien Kooperatiben Batasunari helaraz dakizkien.

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/MOC-00070. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita behin betikoz ekin diezaion Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean izapidetu dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita behin

betikoz ekin diezaion Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari. Mozioa 2025eko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00245. Galdera, Errenta Bermatuaren eskabideak ebazteko eta jakinarazteko hiru hilabeteko epea luzatzeari buruzkoa*ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galdera, Errenta Bermatuaren eskabideak ebazteko eta jakinarazteko hiru hilabeteko epea luzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Berguak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreari, ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak hiru hilabetez luzatu du errenta bermatua jasotze aldera 2025eko martxoaren 8tik ekainaren 6ra bitarte aurkeztutako eskariak ebazteko eta jakinarazteko epea. Zer balorazio egiten duzu horri buruz?

Iruñean, 2025eko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

11-25/PES-00247. Galdera, jakiteko trantsizio ekologikoren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan 2024rako onetsitako aurrekontuaren zer portzentaje bete den gaur arte*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, jakiteko trantsizio ekologikoren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan 2024rako onetsitako aurrekontuaren zer portzentaje bete den gaur arte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024rako trantsizio ekologikoaren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan onartutako aurrekontuaren zer ehuneko gauzatu da jada gaur egun, eta zer partida zehatzetan gertatzen ari dira atzerapen esanguratsuak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00248. Galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak baloratzeko eta horiei prestazioak emateko atzerapenak murrizteko neurriei buruzkoa**MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak baloratzeko eta horiei prestazioak emateko atzerapenak murrizteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer ekintza zehatz egiten ari dira mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako prestazioak baloratu eta ematean izaten diren atzerapenak murrizteko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00249. Galdera, etxeko laguntza-zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemiei eta horien inpaktua neurtzeko baliatzen diren adierazleei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, etxeko laguntza-zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemiei eta horien inpaktua neurtzeko baliatzen diren adierazleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nola ari da ebaluatzen etxeko arreta-zerbitzuen eraginkortasuna eta zer adierazle erabiltzen dira haien eragina neurtzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00250. Galdera, kalean lo egiten duen lau adingabeko familiaren egoera bideratzeko neurriei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, kalean lo egiten duen lau adingabeko familiaren egoera bideratzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Jakinarazi denaren arabera, lau adingabeko familia bat gaur egun Iruñeko kalean lo egiten ari da. Baloratu al da familia horren egoerari irtenbidea emateko premiazko neurriak hartzeko aukera?

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/PES-00251. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeherari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeherari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio honako idatzizko galdera hauei erantzun diezaien.

Maiatzaren 24an 57/2024 Foru Agindua argitaratu zen, zeinetan Nafarroako Komunitateko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen diren.

Duela gutxi Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeek 2025-2026 ikasturterako plantillen aurreikuspena bidali zuten, Hezkuntza-Ikuskaritzako Zerbitzuak eskatuta. Gorputz Hezkuntza eta/edo Musika atzerriko hizkuntzan ematen dituzten ikastetxeek ere horretarako beharrezkoak ziren irakasle-lanpostuak adierazi zituzten. Bi ikasgai horietako irakasle espezialistak batzuk funtzionarioak dira eta beste batzuk behin-behinekoak. Jakin dugu, ordea, hezkuntzako ikuskaritzak itzuli egin dituela aurreikuspen horiek, eta zuzendaritza-taldeei agindu diela horiek aldatzeko; izan ere, badirudi curriculum-arlo horiek ikastetxeko hizkuntza-proiektutik

kanpo geratzen direla, hau da, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza-programatik kanpo.

– Zenbat irakasleri eragingo die Foru Agindu berriak?

– 57/2024 Foru Agindua kontuan hartuta, eta batez ere 5. artikulua dioena ikusita, ezin da ondorioztatu Gorputz Hezkuntza eta/edo Musika ikasgaiak Hizkuntzen Programatik kanpo daudelik. Zergatik utzi nahi ditu Hezkuntza Departamentuak Ikastetxeetako Hizkuntza Planetatik kanpo?

– 2022ko egonkortze prozesuan hainbat irakasle atzerriko hizkuntzaren profila zuten plazak lortu zituzten Gorputz Hezkuntzan eta Musikan. Badirudi orain profilik gabeko plazak izanen direla, baina badira beste hainbeste irakasle Gorputz Hezkuntzan oraindik behin betiko destinorik ez dutenak. Zer egingen dute orain? Zeintzuk izanen dira irizpideak lekualdatze lehiaketarako? Zeintzuk izanen dira lehentasuna izanen dutenak destinoa lortzeko?

– Zer gertatuko da oposizioa-lehiaketan parte hartu eta gero Gorputz Hezkuntzako ingeleseko zerrendetan dauden maisu-maistrekin? Horietako asko lehentasunezko zerrendan daude oposizioa gainditu zutelako. Baina beste zerrenda bat dago, zeinetan ingelesa ez den eskatzen. Bertan ere lehentasunezko zerrendan jende anitz dago. Bi zerrendak mantenduko dira? Zerrendak bateratuko dira? Zein irizpiderekin?

– Zer asmo dago bi espezialitate horietako aldi baterako kontratazio-zerrendan dauden irakasleekin? Bai plazarik gabeko gaindituen lehentasunezko zerrendan daudenekin, bai hautaketa-prozesutik aukeratuak izan ziren gainerakoekin.

– Hemendik aurrera ingelesez ordu gehiago eman beharko direnez (Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutza), atzerriko hizkuntzetan profilik ez duten irakasle batzuk lekualdatuak izan beharko dira. Zenbat izanen dira? Zer asmo dago langile horiei dagokienez?

– Hezkuntza Departamentua elkarlanean ari al da ikastetxeetako zuzendaritzekin Foru Agindu horri betetzeak ekarriko dituen gorabeherak lantzeko?

Iruña, 2025eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00253. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Agindua eragindako gorabeherari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Agindua eragindako gorabeherari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio honako idatzizko galdera hauei erantzun diezaien.

Maiatzaren 24an 58/2024 Foru Agindua argitaratu zen, zeinetan Nafarroako Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen diren.

Foru Agindu berriarekin ingelesez eman beharreko gutxieneko orduak handitzen dira (6tik 8ra), eta, gainera, orain ingelesez eman beharreko ikasgaiak derrigortzen dira (Geografia eta Historia, Biologia eta Geologia, Fisika eta Gorpuz Hezkuntza). Lehen ikastetxeak ikasgaiak aukeratzeko askatasuna zuen.

– Hezkuntza Departamentua elkarlanean ari al da ikastetxeetako zuzendaritzekin Foru Agindu horri betetzeak ekarriko dituen gorabeherak lantzeko?

– Sanduzelaiko Iparralde Institutuan esparruka lan egiteko programa daukate ezarria. Institutu horretako zuzendaritzak, ordea, kezka agertu du metodologia hori bateraezina izan daitekeelako Foru Agindu hori betetzearekin. Nola bermatu behar du Hezkuntza Departamentuak programa horrek jarraipen izatea?

Iruña, 2025eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00254. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoetarako buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoetarako buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoak areagotu izanak eragin handia dauka profesionalen osasun mental eta fisikoan, bai eta pazienteek jasotzen duten osasun-arretaren kalitatean ere.

Galderak:

1) Osasun arloko profesionalen aurka 2021ean, 2022an, 2023an eta 2024an izan diren erasoetarako kopuru osoa, honela xehakaturik: urtea, erasomota, eraso jaso duen profesionalaren sexua eta kategoria profesionala, laguntza-esparrua eta eraso zer osasun-zentrotan gertatu zen.

2) Zer jarduketa-protokolo daude indarrean ONOZen, profesionalen aurkako erasoak prebenitzeko, detektatzeko eta egoera horietan jarduteko?

3) Zenbat osasun-zentro edo ospitale-unitatek dituzte gaur egun segurtasun fisikoko langileak eta/edo bidezaintzako sistemak?

4) Zer laguntza-neurri eskaintzen zaizkie eraso jasaten duten profesionalak? Zenbat pertsonak erabili dituzte baliabide horiek 2021etik gaur arte?

5) Zenbat salaketa aurkeztu dira aldi horretan agintaritzaren judizialaren aurrean? Zenbat prozedura amaitu dira epai edo ebaspen irmoarekin?

6) Zer baliabide ekonomiko bideratu ditu Nafarroako Gobernuak 2021az geroztik osasun-eremuko erasoak prebenitzeko?

7) Zer aurreikuspen dago ekitaldi honetarako eta hurrengoetarako?

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00255. Galdera, Foru Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko enpresa-batzordearekin koordinatutako berrindustrializazio-mahaiari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Foru Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko enpresa-batzordearekin koordinatutako berrindustrializazio-mahaiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gaia: BSHren Ezkirozko plantako kaleratzeak

Zertan da Nafarroako Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko langile-batzordearekin koordinatzen duen berrindustrializazio-mahaia?

Ba al dago planta horrekiko interesa duen enpresarik? Zer fasetan daude elkarrizketak?

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00256. Galdera, Beiren egin den "Eskola Aktiboak" jardunaldiari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Beiren egin den "Eskola Aktiboak" jardunaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Beiren egin den "Eskola Aktiboak" jardunaldia- ren zer jarraipen eta ebaluazio egin da?

Zer neurri zehatz hartu da ekimen pilotuak errepikatzeke (Karaberi eskola-telebista, 0-3 urteko arreta, familia berrientzako pizgarriak)?

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00257. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak ukitutako irakasleei buruzkoa

ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak ukitutako irakasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio honako idatzizko galdera hauei erantzun diezaien.

Maiatzaren 24an 58/2024 Foru Agindua argitaratu zen, zeinetan Nafarroako Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen diren.

– Zenbat irakasleri eragingo die Foru Agindu berriak?

– 2022ko egonkortze prozesuan hainbat irakaslek atzerriko hizkuntzaren profila zuten plazak lortu zituzten Matematikan eta Teknologian, orain profil gabeko plazak izanen dira. Zer gertatuko da haiekin? Plaza duten ikastetxeetan geratzen ahalko dira? Lekualdatze lehiaketan derrigorrezko parte-hartzea izanen dute?

– Zer gertatuko da oposizioa-lehiaketan parte hartu eta gero Matematikan eta Teknologian ingelesez emateko zerrendetan daudenekin? Horieta-ko asko lehentasunezko zerrendan daude oposizioa gainditu zutelako. Baina beste zerrenda bat dago, zeinetan ez den ingelesa eskatzen, eta bertan lehentasunezko zerrendan jende anitz dago. Bi zerrendak mantenduko dituzte? Zerrendak bateratuko dituzte? Zein irizpiderekin?

– Hemendik aurrera ingelesez ordu gehiago eman beharko direnez (Geografia eta Historia, Biologia eta Geologia, eta Fisika eta Kimika), atzerriko hizkuntzetan profirik ez duten irakasle batzuk lekualdatuak izan beharko dira. Zenbat izanen dira? Zer asmo dago langile horiei dago-kienez?

– Hezkuntza Departamentua elkarlanean ari al da ikastetxeetako zuzendaritzekin Foru Agindu hori betetzeak ekarriko dituen gorabeherak lantzeko?

Iruña, 2025eko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00258. Galdera, gerrako biktimak hobitik atera, identifikatu era erreparatze aldera Nafarroak jaso dituen funtsen banaketari buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, gerrako biktimak hobitik atera, identifikatu era erreparatze aldera Nafarroak jaso dituen funtsen banaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hiru milioi euro banatu dira autonomia-erkidegoen artean, gerraren eta diktaduraren biktimak, zeinen gorpuak hobi, bide-bazter nahiz putzuetan baitaude oraindik, hobitik atera, identifikatu era erreparatzeko. Nafarroak zenbat diru jaso du banaketa horretan eta nola jaso ditu funts horiek?

Nafarroan, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/PES-00259. Galdera, Aizkolegiko jauregian eta Bertizko Jaurerriko parke naturalean 2025ean egindako jarduketei buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Aizkolegiko jauregian eta Bertizko Jaurerriko parke naturalean 2025ean egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikusten du egitea 2025ean Aizkolegi jauregian eta Bertizko Jaurerriko parke naturalean?

Nafarroan, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-25/PES-00260. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroan izandako gertakariei buruzkoa

MARIO FABO CALERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mario Fabo Calero jaunak egindako galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroan izandako gertakariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mario Fabo Calero jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, idatziz erantzuteko honako galdera hauek egiten ditu:

- Zerk eragin zuen 2025eko ekainaren 11n, gauaz, Martzillako bizilagunen eta Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko egoiliarren arteko liskarra? nola ebatzi zen?

- Foruzaingoak eta Guardia Zibilak zenbat aldiz esku hartu dute Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan 2025ean zehar? Zenbat kide mobilizatu zuten esku-hartze bakoitzean?

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Mario Fabo Calero

11-25/PES-00261. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren kudeaketari buruzkoa

MARIO FABO CALERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mario Fabo Calero jaunak egindako galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mario Fabo Calero jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, idatziz erantzuteko honako galdera hauek egiten ditu:

- Bidaidetik gabeko zenbat adingabe atzerritar zegoen Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan 2025eko ekainaren 11n?

- Zenbat langile zegoen, txandaka xehakatuta, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan 2025eko ekainaren 11n?

- Joan den legegintzaldian sortutako Martzillako behaketa- eta harrera-zentroaren zenbat jarraipen-batzorde egin dira legegintzaldi honetan?

- Nafarroako Gobernua zer ari da egiten Martzillako bizilagunekin bizikidetzeta hobetzeko?

- Bidaiderik gabeko zenbat adingabe atzerritar aldatu dira Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik Iruñerrian inauguratu berri den behaketa- eta harrera-zentrora?

- Bidaiderik gabeko zenbat adingabe atzerritar eramanen du Nafarroako Gobernuak Martzillako

behaketa- eta harrera-zentrotik Iruñean inauguratuko den behaketa- eta harrera-zentrora?

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Mario Fabo Calero

11-25/PES-00262. Galdera, Historia Sozial Bakarrari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Historia Sozial Bakarrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Historia Sozial Bakarra dela-eta, zer neurri ezarri dira, zer aurrerapen lortu da eta zein da egun duen egoera?

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/PES-00263. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egiteko arrazoiei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egiteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldea desagertu dela-eta, zergatik alde egin du taldearen buru zegoen psikologoak? Tuterako Osasun Barrutiak zehatz-mehatz zer egunetan jakin zuen alde egin zuela?

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00264. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egin izanak utzitako hutsunea betetzeko ekintzei buruzkoa**LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egin izanak utzitako hutsunea betetzeko ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldea desagertu dela-eta, zer egin da zehazki taldearen buru zegoen psikologoak utzitako hutsunea betetzeko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ebazpena, Kontuen Ganberako lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2025eko martxoaren 20ko ebazpenaren bidez onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukatutik, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Beraz, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DUT:

Lehen.- Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko bi lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

Igoera txanda:

Ez da inor ere aurkeztu.

Txanda irekia:

a) Onartuak:

AGURRUZA MUTUBERRIA, MARIA LUZ

ARCE GUILLEN, JOSE MARIA

BERMUDEZ LOPEZ, EDUARDO

CAMPOS MAULEON, MARINA

CARABANTES GUERRERO, IVAN

CATALAN GOÑI, MARIA DOLORES

DUCUN VALENCIA, JAVIER

FERNANDEZ MANRIQUE, MICHEL

GARBAYO SANCHEZ, JUAN JOSE

HUARTE BERRUETA, RAFAEL

LASA OYARBIDE, KORU

LEAL GARCIA, EDUARDO

LECEA COMPAINS, FERMIN

LEZAUN ECHAURI, IOSU EDER

LIZARRAGA OROQUIETA, ASIER

LOPEZ LORO, FERNANDO

MACUA SADABA, CARLOS EZEQUIEL

MARTIN MARTINEZ, JAIME

MARTIN ORBEGOZO, AITOR

MARTINEZ LOPEZ, OSCAR

MOLINA PRIMICIA, ANA MARIA

MUÑOZ RODRIGUEZ, ISMAEL

SAIZ AGUSTIN, MARIA DOLORES

SANZ MARTINEZ, LAURA

SARALEGUI DIAZ, ALEJANDRO

SOLA NUÑEZ, IÑIGO

TORRES GARCIA, IVAN

UGALDE OJER, JAVIER IGNACIO

UNZUE ZAMARREÑO, EDER

VAZQUEZ ARTETA, ASIER

b) Baztertuak:

BADIOLA SANCHEZ, RAMON (1)

RONCAL VILA, JOSE MANUEL (1)

Baztertzeko arrazoiak:

(1) Kasuko enplegu-bulegoak emandako ziurtagiriaren bidez ez egiaztatzeagatik deialdiko 3.1.1 b) oinarrian jasotako betekizuna.

Bigarrena. Xedatzea, deialdiko 4. oinarriko 2. apartatuan ezarritakoarekin bat, interesdunek erreklamazioak aurkezten ahalko dituztela behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunik hasita hamar egun balioduneko epearen barruan.

neko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunik hasita hamar egun balioduneko epearen barruan.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 11n

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

11-25/ACOP-00013. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, El Salvadorren gertatzen ari den giza eskubideen urraketa sistematikoa dela-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 16an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak jendarean salatu eta gaitzesten du El Salvadorren gertatzen ari den giza eskubideen urraketa sistematikoa eta, aldi berean, aitortu eta babesten du El Salvadorreko gizarte zibileko elkarteek giza eskubideen alde egiten duten lana, ardurakidetzak, elkartasuna eta nazioarteko lankidetzak oinarri hartuta, Nafarroako lankidetzaren politikaren babesarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroako erakunde guztiak premiatzen ditu, bereziki Nafarroako Gobernua, El Salvadorren garapenerako lankidetzaren proiektuak gauzatzeko baliabideak eta malgutasuna mantendu eta indartu dituzten, Nafarroako eta El Salvadorreko gizarte zibileko elkarteekiko lanaren bidez.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren in-
tzidentzia-ekintzak gauzatu ditzan espainiar estatu-
ko bide diplomatikoen bitartez eta eska dezan
espainiar lankidetzaren tresna guztiak, lankidetzak
dezentralizatu oro barne, LAEXen aplikaziotik
kanpo gera daitezkeen. Eta, halaber, Espainiak El Sal-
vadorren duen lankidetzak gisa bat egin dezan indar-
rak batzeko egin daitezkeen deialdiekin, egoera
eguneratzeko eta LAEXen inplementazio-esparruko
balizko ekintza lagungarrien eremu bakarrean.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

